

Seriesa osatzen duten kapituluak

Qartzak -1 -

Qartzak -2 -

Unorea -1 -

Unorea -2 -

Qarvajiak -1 -

Qarvajiak -2 -

Amodiozko kartakigunak -1 -

Amodiozko kartakigunak -2 -

Ezkartza

Maitari

Bilatzaletasunak

Herminia



Skarta bilduma txikia

Ezkartza

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN
INGUNIZAZ EGINDA,
EIMA Programa 1996.

ÀURKEZPENÀ

Kanta bilduma txikia bideo seriea aurkezteko Andoni Egañak Jose Inazio Ansorenaren "Euskal kantak" liburuari egiten dion hitzaurretik esaldi batzuk hona aldatuko ditut:

(...)

"Ze polita den bat altutik beste bajutik edo hango hura ez altutik ez bajutik, letran zer datorren asmatuaz, aldamenekoari belarria itsatsiz... kantuan jardutea!"

(...)

"Herri-kantak dira herri honen biziera eta sentieraren ispilurik onena. Eta euskaldunok, geure zoiñerako, ehundaka, milaka, herri-kanta ditugu. Askotan, ez dakigu nork eginak diren. Ez dakigu letra zehatz-mehatz nola den, edo jakin arren zer esaten ari garen ez dakigula kantatzen ditugu. Ondo gureak dira halere!"

Hauxe litzateke bideo seriearen helburu nagusia. Euskal kanta herrikiolak hamabi eta hamasei urte arteko ikasleei erakustea eta beren arteko bilkuretan kanta ditzaten aholkatzea.

Kantatzearen ludikotasunaz baliatuta, beste hiru helburu didaktiko beste nahi dira:

IRIZPIDE NAGUSIAK

Serie honetan erakusten diren kantak aukeratzean hainbat irizpide izan ditugu kontuan. Hona hemen kontuan izan ditugun irizpideak zerrendatuta:

- 1.- Mozkorra edota alkohola edatea gorai patzen duten kantak bazterzea.
- 2.- Emakume, kultura edo arrazen aurkako aipamen iraingarriak dituzten kantak bazterzea.
- 3.- Kanta oso ezagunak hain ezagunak ez direnekin tartekatzea.
- 4.- Lagun artean kantatzeko abagunea eskaintzen duten doinuak hobestea.
- 5.- Belarriarentzat oso arrotz gertatzen ez badira baitapat, doinu herrikoiak erakustea.
- 6.- Artzuri ketak deritzen kantak ere kanpoan utzi beharrean gara.
- 7.- Erronda, eliz eta haur kantak alboratzea, beste serie batosatzeke beste ematen baitute.

HIZKUNTZA

Ikasleek eskolaurrean eta OHOKo lehen kurtsuotan kantuz ikasten dute. Helduen eskalduntze prozesuan aritu izan garenok, ongi baino hobeto dakigu, zein emaitza onak lortzen diren kanten bidez.

Orduan, zergatik ez erabili gure kantak DBHn hizkuntzaren irakaskuntzaren osagarri gisa?

LITERATURA

Euskal ahozko literatura benetan aberatsa da. Bai kalitatearen aldetik, bai gure literaturaren historiaren berri ematen digulako. Azken bi, hiru hamarkadetan, euskal kantariei esker antzinako poesia hori edozein musika den datan aurki dezakegu. Haiengatik izan ez baitiz, agian, galdurik izango genuke.

MUSIKA

Bideo serieran erakusten diren kanten melodiak oso sinpleak direnez, musikaren oinarritzko arauak ikasteko balio garriak dira. Besteak beste, musikaren munduan erabiltzen diren hiztegi eta zeinuak, erritmoak, eskalak etab.

Horrela eratu tako galbahetik kanta guztiak pasatu ondoren, kantariekin hitz egin dugu eta hamaika kanta baztertu behar izan ditugu ez daudelako harmonizaturik.

MUSIKA

Adierazpen artistiko gisa, musikak **perzeptziozko** eta **adierazpenezko** alde bikoitza du.

Perzeptziozko eremuaren baitan zenbait gaitasun garatu behar dira:

—Ertzute aktiboa, kualitate musikalak bereizteko.

—Musikaren esanahia arretaz entzutea, musika lanen elementuen arteko erazioa igertzeko.

—Guztizko memoria, soinu esperientziak gogoratu eta oroiarazteko.

Gaitasun hauen garapena ikasleen esperientzia musikalen aberastasunaz baldintzatuta dago.

Adierazpenezko gaitasuna soinuaren bitartez beren sentimenduak adieraztea ahalbidetzeko.

—Ahotsa, kantaren jarduera musikaleria eramaten gaituen berezko tresna da eta musika heziketan adierazpen gaitasunak garatzeko oinarritzko elementua, musika tresnekin batera.

—Inprobisazioak elementu garrantzitsua izan behar du ahots, gorputzezko edo instrumentuaren soinuaren mundua libreki esploratzeko baliabide gisa.

—Adierazpen artistiko orok kode edo adierazpen lengoala bat behar du. Musikaren errealitatean sartzeko beharrezkoa izango da kode hau ezagutzea.

—Musika soinuaren konbinazioen bitartez adierazten da. Lengoaia honen sakontasun eta eskurapenak ikasleei musika obraren estetika ulertzea ahalbideratuko die.

Helburu orokorrak

- 1.- Ahotsa erabiliz eta bere ideiak eta sentimentuak adieraztea.
- 2.- Musika lanak sorkuntza artistiko eta ondare kulturalerako adibide bezala aztertzea.
- 3.- Musika ezagutzeko eta hartaz gozatzeko iturri desberdinak autonomiaz erabiltzea.
- 4.- Jarduera musikalean parte hartuz, besteen ekarpenaz sortutako aberastasunaz jabetzea.

Edukiak

2. Mutzoa: adierazpena eta komunikazioa

A) Kontzeptuzko edukiak

—Ahotsen sailkapena.

—Erritmoa, melodia, harmonia, literarotasuna eta interpretazioa.

—Abesti motak eta ezaugarriak. Tradiziozko euskal kantak. Errepertorioa.

B) Prozedurazko edukiak

—Erlazioa, amasketa, artikulazioa, erresonantzia eta intonazioa.

—Giza ahotsak bere tinbrearen arabera. Ahots taldeak.

—Melodikoa, testu eta eskema eritmikoen gainean, eta alderantziz.

—Melodikoa eskema harmonikoen gainean.

—Abestien eskema formalararen analisia: esaldiak, kopia leloa, errepikapenak.

C) Jarrerazko edukiak

1. - Ahoiz teknika baloratu norberaren ahoizta menperatzeko oinarri gisa.
2. - Banakako nahiz taldeko ahozko inprobisazioak balioetsi eta horietaz gozatzea.
3. - Kantu interpretazioa baloratzea eta besteen aurrean irekia izatea erlazioa sustatzeko.
4. - Taldean gustora parte hartzea, ideia aurkeztuz eta taldearen hobekuntza bultzatuz.
5. - Interpretazioen aurrean sentikortasuna eta jarraera kritika agertzea.
6. - Edozein nazioko folkloreko abestiak errespetatu eta baloratzea.

Ebaluaziorako irizpideak

1. - Taldeko kantu jardueretan parte hartzea, norberaren adierazpen eta intonazioa taldearen soinua mailan egokitu.
2. - Gelako musika jardueren testuinguruan musika irakurtzea, interpretazio eta entzute zereginen euskarri gisa.
3. - Ahoz abesti sinple eta melodia laburrak laguntzea, tonika, dominante eta subdominante graduak behar bezala erabiliz.

HIZKUNTZA ETA LITERATURA

"Derrigorezko Bigarren Hezkuntzan Hizkuntza eta Literaturaren azken helburua ikasleek hizkuntzaren oinarriko ondoko lau trebetasunen menderapen pertsonalean aurrera egitea da: entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea. Ekintza pedagogikoa gaitasun hauek finkatzera zuzenduta egongo da eta sakotasunean hedatzera, hizkuntzaren erabilera funtzionala bultzatuz, ahozkoa nahiz idatzizkoa, hau da, hizkuntza komunikazio eta irudikapen tresna eraginkor gisa erabiliztea."

Helburu orokorrak

1. - Ahozko eta idatzizko berbaldiak ulertzea, beren helburu desberdinak eta ekoizten diren komunikazio egoerak antzemanez.
2. - Euskal Herriko euskalkiak ezagutu eta baloratzea, estereotipo soziolinguistikoak gaindituz eta elkar ukitzen direnean sortarazten dituzten arazoak kontuan hartuz.
3. - Poesiaren irakurketa eta idazkera komunikazio era eta kultur aberaste iturri gisa baloratu eta haietatik ateratako etekinaz baliatu eta gozatu.
4. - Literatur testuak eta asmo literarioa duten ahozko nahiz idatzizko testuak interpretatu eta ekoiztea, jarraera personal kritiko eta sortzaileetatik abiatuta.

Edukiak

2. multzoa: *hizkuntza literaturan*

Multzto honen oinarritzko helburua, garai eta toki guzietako literatur testuen irakurketan oinarritutako ulermena da. Irakurketa gozamenenerako susstatzeak ulermena eta adierazpenaren garapena dakar, eta irakurketa dokumentazio eta azterketarako urratsa izatea ahalbidetzen du.

Kontzeptuzko edukiak:

- Testu plana testuaren egitura globala bezala.
- Kohesio prozedurak.
- Testuaren ortografia: paragrafoko banaketa.
- Erima, bertsoreen lerro kopurua, lerro bakoitzaren silaba kopurua.
- Bertsoreen doinua irakurtzerakoan. Espresioa.
- Inrudi linguistikoak, metaforak, alderakuntzak.

Prozedurazko edukiak

Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko prozedurak

- Irakurketa autonomoa atsegin eta aberaste kulturalaren iturri bezala.
- Prosa eta poesiazko testuen irakurketa espresiboa.
- Testuen gaia identifikatzea.

Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko prozedurak.

- Testu batean garatu behar den edukia ren plangintza burutu.
- Koherentzia, gramatika eta ortografia arauak eta aurkezpen argia kontutan hartu
- Norberaren ekoizpenen berrikuspen, ebaluazio eta zuzenketa sistematikoa.

Jarrerazko edukiak

- Testu baten aurrean eman daitezkeen interpretazio desberdinez jabetzea.
- Norberak idatzitako testuen gainbegiratzek duen garrantzia baloratzea.
- Testu idatzia menperatzek duen garrantzi soziala eta pertsonalaz jabetzea.
- Arraza, klase eta sexuzko aurreiritziak darimatzen erabilera linguistikoan aurrean jarrera kritikoa garatzea.

Ebaluaziorako irizpideak

Skantza kildunua txikiak nola erabili

- 1.- Ikasleari interesatzen zaion literatura testu bat bere osotasunean irakurri ondoren, zein testu motakoa den identifikatzea, oinarriko egitura elementu nahiz estilozko errekurtsuak ezagutuz eta gehien edo gutxien maitatzen diren alderdiei buruz iritzi pertsonal bat emanez.
- 2.- Norberaren ideia eta esperientziak asmo literarioa duten testuak ekoizteko erabiltzea. gelan landutako literatura lanak eredutzat hartuz.

Skantza kildunua txikiak klasean erabiltzeko proposamen bat egingo dugu jarraian. Arestian esan dugun bezala bere helburu nagusia ikasleengan lagun artean kantatzeko ohitura piztea, edo, hainbat kasutan, agian, berpiztea da.

- 3.- Hizkuntzaren mekanismo eta bere elementu formalei buruz (egokitzapen markak, testu egiturak, kohesio prozedurak, perpausen egitura, hitzen eraketa, inudi linguistikoak, erimak, doinua etab.) hausnartzea, besteen testuak ulertzeko eta norberarenak gainbegiratu eta hobetzeko gai izatearren.

- 4.- Irakurriako testuan euskalkien arteko ukipen fenomenoak identifikatu, lokalizatu eta deskribatzea, errealitate eleantizuna adierazpen soziokultural gisa errespetatuz.

Ezertan hasi aurretik bideoaren atalen berri izatea komeni da. Bideoan bizpahiru kanta daude eta bakoitzaren lanketa honako atal hauez osatzen da:

- 1.- Aurkezleak kantaren egileari edo hitzen gaiari buruzko aipamen laburra egiten du.
- 2.- Errotulu biartez kantaren ahapaldi bat edo biren hitzak pantailaratzen dira eta aurkezleak haiei buruzko aipamenak egingo ditu edo aipatzekorik ez dutenak irakurri egingo ditu.
- 3.- Kantariak hitzei dagokien oinarriko melodia kantatu egingo du.
- 4.- Ondoren melodia bera baina modu softeatuan (DO-RE-MI eran) kantatuko du.
- 5.- Aurkezleak abesbatzak kantatuko duen bertsoari buruzko aipamen laburra egingo du.

Hizkuntza eta Literatura

ematen duen irakasleari proposamena:

Lehenbiziko lana Musika ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta, bion artean, bideo bat aukeratzeari izango da.

Ondoren bideoa martxan jarriko dugu, eta kantaren lehen bi atalak ikusiko ditugu.

Bideoa ikusita, irakasleak kantaren bertso guztiak banatuko dizkie ikasleei.

Hau eginda honako urratsok proposatzen dira:

—Ikasleak taldeetan banatu eta olerkia irakur dezatela esango diegu. Ondoren, ulertzeko dituzten trabak argituiko ditugu. Jarraian olerkiak diioenaren laburpena egin dezatela esango diegu. Irakasleak agindutako epea bukatzean, talde bakoitzak bere laburpena besteen aurrian agertuko du. Ageripenaren ostean, eztabaida bidez, laburpen adostua osatuko dute denon artean.

—Hori eginda, talde bakoitzak irakurle bana aukeratu du, olerkia, klasearen burrian irakurtzeko. Gainerako kideei errespetua eta isiltasuna eskatuko diegu.

—Orain olerkian agertzen diren irudi poetikoak ateratzeko eskatuko diegu.

—Jarraian, olerkiaren egitura aztertuko dugu (errima, silaba edo oin kopurua, lerro

kopurua...).

—Hurrengo urratsan olerkiaren egileaz mintzatuko gara, egilerik balu. Ez balu, ezerez.

—Gero, olerkia egin zen garaiaz mintzatuko gara.

—Bukatzeko, bideoa berriro martxan jarriko dugu eta bosgarren atala jarrita, abesbatzarekin batera kanta kantatuko. Abesbatzak bukatzen duenean, bideoa itzaliko dugu eta ikasle eta irakasleak kantaren ahapaldi denak kantatuko dituzte.

Musika ematen duen irakasleari proposamena:

Lanketarekin hasteko ikasleek musikaren oinarritzko kontzeptuak (hizitegia, partitura...) ikusita izan beharکو dituzte.

Lehenbiziko lana Hizkuntza eta Literatura ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta bideo bat aukeratzeari izango da.

Ondoren bideoa martxan jarri eta hirugarren eta laugarren atalak ikusiko ditugu. Alegia, oinarritzko melodiarik eta sofoeari dagozkionak.

Abestien partitura bihurtuko dugu gida honetan, azken orrialdean, zerrendatzen diren liburuetako batean.

Ikasleak binaka jarriko ditugu. Bikote bakoitzari kantaren partitura bana emango diogu. Iklasleek hamar minutuko epea izango dute han agertzen dena irakurri eta do-re-mi erara kantariak kantatutako melodia gogoratuzeko. Behar izanez gero berriro jarriko dugu bideoa.

Hamar minutuak pasatu direnean, irakasleak melodiarik buruz galde diezaiotela esango die ikasleei. Galderantzuzuen saio hau gauzak argi geratu arte luzatuko da. Honekin, musikari buruzko azalpen eta iritzi guztiak agertu daitezzen nahi da.

Dena argi gelditu denean, irakaslea ikasleentz aurrean jarriko da eta zuzendari papera egingo du. Iklasleak kantariak izango dira. Iklasitako

melodia, do-re-mi erara kantatuko dute denek batera bizpahiru aldiz buruz ikasi arte.

Melodia ikasia dutenean, irakasleak ikasle bikote bakoitzari kantaren lehenbiziko bertso edo ahapaldia eta, kantak jeloia balu, jeloia ere, emango dio. Bideoa lehen utzi duen tokitik martxan jarriko du lehen kantak irauten duen arte. Horrela, ikasleek hitzak aurrean dituztela eta pantailian abesbatza kantari eta hitzak barrenean, kanta hitzez kantatu ahal izango dute, bai pantailari begira bai beren paperei begira.

Hau guztia eginda, irakasleak kantaren ezaugarriei buruzko azalpenak egingo ditu: Alderdi musikaletik, (tonalitatea, konpasa, lastertasuna...)
Alderdi historikotik, (zein garaitakoa den, ze musika mota ziren garai hartan, orduko musiken ezaugarriak, kantari erantsi zaionaren erabilpena gizarrean...)

Bukatzeke denen artean inprobisazioa joko dugu. Ahots berriak erantsiz oinarritzko melodiarik, instrumenturen bat sartu akonpainamendu modura... Nahi beste joko egin daitezke, beti ere klasearen helburua hautsi gabe.

Seriesa osatzeko erabili ditugun liburuak

Resurrección María de Azkue
"Cancionero popular vasco"

-La Gran Enciclopedia Vasca- BI-1968

Aita Donostia
"Cancionero general" (lau liburu dira)

Jose Inazio Ansorena
"Euskal kantak"

Liburu hauetan kantaren hitzekin batera musikaren partitura agertzen da.

Hizkuntza eta Literatura ematen duenarentzat:

Aita Santi Onaindia
"Mila Euskal Olerki"

Karmeldar idazleak, Larrea-Amorebieta 1954

Jesus Maria de Leizaola
"Romances vascos y literatura prehistórica"
Editorial vasca Ekin. Buenos Aires-1959

Musika ematen duenarentzat:

Jose Manterola
"Cancionero Vasco"
Sendoa Donostia-1981

Jorge de Riezu
"Flor de canciones populares vascas"
Sendoa Donostia-1982

"Mendebaldeko baladak"
Liburua eta Ruper Ordoñakak, Tapiak eta Bixente
Martínezek oraintsu argitaratu kasetea eskura daitezke.

Salleko euskal idazleen elkartera (SEIE)
"Herria oihuka"
Bilbo-1977